de esparcimiento, deportes y en todos los aspectos de la vida cultural.

Artículo 14.

1. Los Estados partes tendrán en cuenta los problemas especiales a que hace frente la mujer rural y el importante papel que desempeña en la supervivencia económica de su familia, incluido su trabajo en los sectores no monetarios de la economía, y tomarán todas las medidas apropiadas para asegurar la aplicación de las disposiciones de la presente Convención a la mujer de las zonas rurales.

2. Los Estados partes adoptarán todas las medidas apropiadas para eliminar la discriminación contra la mujer en las zonas rurales a fin de asegurar, en condiciones de igualdad entre hombres y mujeres, su participación en el desarrollo rural y en sus beneficios, y en particular le asegurarán el derecho a:

- a) Participar en la elaboración y ejecución de los planes de desarrollo a todos los niveles.
- b) Tener acceso a servicios adecuados de atención médica, inclusive información, asesoramiento y servicios en materia de planificación de la familia.
- c) Beneficiarse directamente de los programas de seguridad social.
- d) Obtener todos los tipos de educación y de formación, académica y no académica, incluidos los relacionados con la alfabetización funcional, así como, entre otros, los beneficios de todos los servicios comunitarios y de divulgación a fin de aumentar su capacidad técnica.
- e) Organizar grupos de autoayuda y cooperativas a fin de obtener igualdad de acceso a las oportunidades

kultura-bizitzako alde guztietan parte hartzeko eskubidea.

14. artikulua

1. Estatu-alderdiek kontuan hartuko dute, nekazaritza-arloko emakumeek zein arazo bereziei egin behar dieten aurre, eta emakume horien garrantzia euren familiaren ekonomia-biziraupenerako, ekonomiaren moneta-sektoreetatik kanpo gauzatutako lana ere aintzat hartuta; halaber, estatu-alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, nekazaritza-guneetako emakumeei konbentzio honetako xedapenen aplikazioa ziurtatzeko.

2. Estatu-alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte nekazaritza-guneetan emakumearen aurkako bereizkeria ezabatzeko, emakumeen partaidetza ziurta dadin, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-baldintzetan, nekazaritzaren garapenean eta horrek eratorritako onuretan, eta, bereziki, hurrengo eskubideak ziurtatuko dizkiote emakumeari:

- a) Maila guztietako garapen-planak egin eta betearaztean parte hartzea.

Mediku-arretako zerbitzu egokiak izatea, horietara familia-plangintzarako informazioa, aholkularitza eta zerbitzuak biltzen direla.

- c) Gizarte Segurantzako programetatik zuzeneko onurak lortzea.

Hezkuntza- eta heziketa-mota guztiak izatea, akademikoak nahiz akademikoak ez direnak, alfabetatze funtzionalarekin zerikusia dutenak horien barne, bai eta zerbitzu erkideen eta zabaltze-zerbitzuen onurak lotzea ere, gaitasun teknikoa areagotzeko xedearekin.

- e) Nork bere buruari laguntzeko taldeak nahiz kooperatibak antolatzea, ekonomia-aukerei begira berdintasuna

económicas mediante el empleo por cuenta propia o por cuenta ajena.

f) Participar en todas las actividades comunitarias.

g) Obtener acceso a los créditos y préstamos agrícolas, a los servicios de comercialización y a las tecnologías apropiadas, y recibir un trato igual en los planes de reforma agraria y de reasentamiento.

h) Gozar de condiciones de vida adecuadas, particularmente en las esferas de la vivienda, los servicios sanitarios, la electricidad y el abastecimiento de agua, el transporte y las comunicaciones.

Parte IV

Artículo 15.

1. Los Estados partes reconocerán a la mujer la igualdad con el hombre ante la ley.
2. Los Estados partes reconocerán a la mujer, en materias civiles, una capacidad jurídica idéntica a la del hombre y las mismas oportunidades para el ejercicio de esa capacidad. En particular, le reconocerán a la mujer iguales derechos para firmar contratos y administrar bienes y le dispensarán un trato igual en todas las etapas del procedimiento en las cortes de justicia y los tribunales.
3. Los Estados partes convienen en que todo contrato o cualquier otro instrumento privado con efecto jurídico que tienda a limitar la capacidad jurídica de la mujer se considerará nulo.
4. Los Estados partes reconocerán al hombre y a la mujer los mismos derechos con respecto a la legislación relativa al derecho de las personas a circular libremente y a la libertad para elegir su residencia y domicilio.

Artículo 16.

lortzeko xedearekin, norberaren konturako edo inorentzako enpleguaren bidez.

f) Europako Erkidegoko jarduera guztietan parte hartzea.

g) Nekazaritza-kreditu nahiz -maileguak, merkaturatze-zerbitzuak eta teknologia egokiak izatea, eta nekazaritza-erlaketako planetan eta berregite-planetan tratu bera izatea.

h) Bizitza-baldintza egokiak izatea, bereziki etxebizitzaren, osasun-zerbitzuen, elektrizitatearen eta ur-horniketaren, garraioaren eta komunikabideen esparruetan.

IV. zatia

15. artikulua

1. Estatu-alderdiek emakumeari aitortuko diote gizonarekiko berdintasuna legearen arabera.
2. Estatu-alderdiek emakumeari aitortuko dizkiote, gai zibiletan, gizonak duen gaitasun juridiko bera eta gaitasun hori gauzatzeko aukera berberak. Bereziki, estatu-alderdiek emakumeari aitortuko dizkiote kontratuak sinatzeko eta ondasunak administratzeko eskubide berberak, eta auzitegietako prozedura-etapa guztietan tratu bera eskainiko diote.
3. Estatu-alderdiek adostu dute deuseztat hartuko dela emakumearen gaitasun juridikoa mugatzen duen kontratu oro edo beste edozein tresna pribatu, baldin eta horrek ondore juridikoa badu.
4. Estatu-alderdiek gizonari eta emakumeari eskubide berberak aitortuko dizkiete, pertsonen joan-etorri askearen eskubidea eta bizilekua nahiz egoitza aukeratzeko askatasuna barneratzen dituzten legearen aldetik.

16. artikulua

1. Los Estados partes adoptarán todas las medidas adecuadas para eliminar la discriminación contra la mujer en todos los asuntos relacionados con el matrimonio y las relaciones familiares y, en particular, asegurarán, en condiciones de igualdad entre hombres y mujeres:

- a) El mismo derecho para contraer matrimonio.
- b) El mismo derecho para elegir libremente cónyuge y contraer matrimonio sólo por su libre albedrío y su pleno consentimiento.
- c) Los mismos derechos y responsabilidades durante el matrimonio y con ocasión de su disolución.
- d) Los mismos derechos y responsabilidades como progenitores, cualquiera que sea su estado civil, en materias relacionadas con sus hijos; en todos los casos, los intereses de los hijos serán la consideración primordial.
- e) Los mismos derechos a decidir libre y responsablemente el número de sus hijos y el intervalo entre los nacimientos y a tener acceso la información, a la educación y los medios que les permitan ejercer estos derechos.

f) Los mismos derechos y responsabilidades respecto de la tutela, curatela, custodia y adopción de los hijos o instituciones análogas cuando quiera que estos conceptos existan en la legislación nacional; en todos los casos, los intereses de los hijos serán la consideración primordial.

g) Los mismos derechos personales como marido y mujer, entre ellos el derecho a elegir apellido, profesión y ocupación.

h) Los mismos derechos a cada uno de los cónyuges en materia de propiedad, compras, gestión, administración, goce

1. Estatu-alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, emakumearen aurkako bereizkeria ezabatzeko ezkontzarekin eta familia-harremanekin zerikusia duten gai guztietan, eta, bereziki, hurrengoak ziurtatuko dituzte, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-baldintzetan:

a) Ezkontzeko eskubide bera.

b) Ezkontidea askatasunez aukeratu nahiz bere kontura eta adostasun osoz ezkontzeko eskubide bera.

c) Eskubide eta ardura berberak ezkontuta egon bitartean eta ezkontza desagitean.

d) Guraso gisa eskubide eta ardura berberak, euren egoera zibila edozein dela, seme-alabekin zerikusia duten gaitan; edozein kasutan, seme-alaben interesek lehentasuna izango dute.

e) Eskubide berberak, askatasunez eta arduraz erabakitzeko seme-alaben kopurua eta seme-alaben jaiotzen arteko denbora-tartea, eta eskubide horiek egikaritzea ahalbidetzen duten informazio, hezkuntza eta bideak izateko.

f) Eskubide eta ardura berberak, seme-alaben tutoretza, kuradoretza, zaintza eta adopzio edo antzeko erakundeei dagokienez, nazio-legerian kontzeptu horiek daudenean; edozein kasutan, seme-alaben interesek lehentasuna izango dute.

g) Senar-emazte gisa eskubide pertsonal berberak, eta horien artean abizena, lanbidea eta okupazioa aukeratzeko eskubidea.

h) Ezkontide bakoitzari eskubide berberak, ondasunen jabetza, erosketa, kudeaketa, administrazioa, gozamina

y disposición de los bienes, tanto a título gratuito como oneroso.

2. No tendrán ningún efecto jurídico los esponsales y el matrimonio de niños y se adoptarán todas las medidas necesarias, incluso de carácter legislativo, para fijar una edad mínima para la celebración del matrimonio y hacer obligatoria la inscripción del matrimonio en un registro oficial.

PARTE V

Artículo 17.

1. Con el fin de examinar los progresos realizados en la aplicación de la presente Convención, se establecerá un Comité sobre la eliminación de la discriminación contra la mujer (denominado en adelante el Comité) compuesto, en el momento de la entrada en vigor de la Convención, de dieciocho y, después de su ratificación o adhesión por el trigésimo quinto Estado parte, de veintitrés expertos de gran prestigio moral y competencia en la esfera abarcada por la Convención. Los expertos serán elegidos por los Estados partes entre sus nacionales, y ejercerán sus funciones a título personal; se tendrán en cuenta una distribución geográfica equitativa y la representación de las diferentes formas de civilización, así como los principales sistemas jurídicos.

2. Los miembros de Comité serán elegidos en votación secreta de una lista de personas designadas por los Estados Partes. Cada uno de los Estados Partes podrá designar una persona entre sus propios nacionales.

3. La elección inicial se celebrará seis meses después de la fecha de entrada en vigor de la presente Convención. Al menos tres meses antes de la fecha de cada elección, el Secretario General de

eta xedatzeari dagokionez, dohainik nahiz kostu bidez.

2. Haurren ezkon-hitzek eta ezkontzak ez dute inolako ondore juridikorik izango, eta behar diren neurri guztiak hartuko dira, legegintzazkoak barne, ezkontzeko gutxieneko adina ezarri eta ezkontzaren inskripzioa nahitaez erregistro ofizial batean egiteko.

V. ZATIA

17. artikulua

1. Konbentzio hau aplikatzeko eman diren aurrerapausoak aztertzeko helburuarekin, emakumearen aurkako bereizkeria ezabatzeari buruzko komitea ezarriko da (aurrerantzean komitea deituko dena); berau osatuko dute hemezortzi adituk, konbentzioa indarrean jartzeko unean, eta hogeita hiru adituk, estatu-alderdietarik hogeita hamabosgarrenak konbentzioa berretsi edo horri atxiki ondoren, guztiak ere konbentzioaren esparruan moral aldetik ospetsuak eta gaitasun handikoak. Estatu-alderdiek hautatuko dituzte adituak, euren lurraldeko naziotasuna dutenen artean, eta aditu horiek euren eginkizunak beteko dituzte modu pertsonalean; kontuan hartuko dira bidezko banaketa geografikoa eta zibilizazio-mota desberdinen ordezkariak, bai eta sistema juridiko nagusiak ere.

2. Komiteko kideak isilpeko botazio bidez hautatuko dira, estatu-alderdiek izendatutako pertsonen zerrenda batetik. Estatu-alderdi bakoitzak pertsona bat izendatu ahal izango du bere lurraldeko naziotasuna dutenen artean.

3. Hasierako hautatzea egingo da konbentzio hau zein datatan indarrean jarri eta data horretatik sei hilabete igaro ondoren. Hauteskunde bakoitza zein datatan egin eta, gutxienez, data

las Naciones Unidas dirigirá una carta a los Estados partes invitándoles a presentar sus candidaturas en un plazo de dos meses. El Secretario General preparará una lista por orden alfabético de todas las personas designadas de este modo, indicando los Estados partes que las han designado, y la comunicará a los Estados partes.

4. Los miembros de Comité serán designados en una reunión de los Estados partes que será convocada por el Secretario General y se celebrará en la Sede de las Naciones Unidas. En esta reunión, para la cual formarán quórum dos tercios de los Estados partes, se considerarán elegidos para el Comité los candidatos que obtengan el mayor número de votos y la mayoría absoluta de los votos de los representantes de los Estados partes presentes y votantes.

5. Los miembros del Comité serán elegidos por cuatro años. No obstante, el mandato de nueve de los miembros elegidos en la primera elección expirará al cabo de dos años; inmediatamente después de la primera elección el Presidente del Comité designará por sorteo los nombres de esos nueve miembros.

6. La elección de los cinco miembros adicionales del Comité se celebrará de conformidad con lo dispuesto en los párrafos 2, 3 y 4 del presente artículo, después de que el trigésimo quinto Estado parte haya ratificado la Convención o se haya adherido a ella. El mandato de dos de los miembros adicionales elegidos en esta ocasión, cuyos nombres designará por sorteo el Presidente de Comité, expirará al cabo de dos años.

7. Para cubrir las vacantes imprevistas,

hori baino hiru hilabete lehenago, Nazio Batuetako idazkari nagusiak gutun bat bidaliko die estatu-alderdiei, euren hautagai-zerrendak bi hilabeteko epean aurkezteko gonbita eginez. Idazkari nagusiak, modu horretara izendatutako pertsona guztiekin, hurrenkera alfabetikoaren arabera zerrenda prestatuko du, pertsona horiek izendatu dituzten estatu-alderdiak zehaztuz; zerrenda horren berri estatu-alderdiei emango die.

4. Komiteko kideak estatu-alderdien bilera batean izendatuko dira; bilera horren deialdia idazkari nagusiak egingo du, eta bilera Nazio Batuen egoitzan egingo da. Bilera horretarako estatu-alderdien bi herenak osatuko du quoruma, eta komiterako hautatutzat joko dira boto gehien lortzeaz gain, bilerako estatu parte-hartzaile eta boto emaileen ordezkarien artetik botoen erabateko gehiengoa lortzen dituzten hautagaiak.

5. Komiteko kideak lau urterako aukeratuko dira. Hala ere, lehenengo hautaketan hautatutako bederatzikideren agintaldia bi urte igaro ondoren amaituko da; lehenengo hautaketa egin eta berehala, komiteko lehendakariak zozketa bidez aukeratuko ditu bederatzikide horien izenak.

6. Komiteko osterantzeko bost kideen hautaketa egingo da artikuluko honetako 2, 3 eta 4. paragrafoetan xedatutakoaren arabera, estatuatarik hogeita hamabosgarrenak konbentzioa berretsi edo horri atxiki ondoren. Aldi horretan hautatutako bi kide gehigarriren agintaldia amaituko da bi urte igaro ondoren; euren izena komiteko lehendakariak aukeratuko du zozketa bidez.

7. Aurreikusitako gabeko hutsuneak

el Estado parte cuyo experto haya cesado en sus funciones como miembro del Comité designará entre sus nacionales a otro experto a reserva de la aprobación del Comité.

8. Los miembros del Comité, previa aprobación de la Asamblea General, percibirán emolumentos de los fondos de las Naciones Unidas en la forma y condiciones que la Asamblea determine, teniendo en cuenta la importancia de las funciones del Comité.

9. El Secretario General de las Naciones Unidas proporcionará el personal y los servicios necesarios para el desempeño eficaz de las funciones del Comité en virtud de la presente Convención.

Artículo 18.

1. Los Estados partes se comprometen a someter al Secretario General de las Naciones Unidas, para que lo examine el Comité, un informe sobre las medidas legislativas, judiciales, administrativas o de otra índole que hayan adoptado para hacer efectivas las disposiciones de la presente Convención y sobre los progresos realizados en este sentido:

- a) en el plazo de un año a partir de la entrada en vigor de la Convención para el Estado de que se trate, y
- b) en lo sucesivo por lo menos cada cuatro años y, además, cuando el Comité lo solicite.

2. Se podrán indicar en los informes los factores y las dificultades que afecten al grado de cumplimiento de las obligaciones impuestas por la presente Convención.

Artículo 19.

1. El comité aprobará su propio

betetzeko, komitean zein estatu-alderdiko kideek utzi bere eginkizunak gauzatzeari eta horren estatuak izendatuko du beste aditu bat, bere lurraldeko naziotasuna dutenen artean, komiteak aditu hori onetsiko duelakoan.

8. Komiteko kideek, aldez aurretik biltzar orokorrak hala onetsita, zerbitzuariak jasoko dituzte Nazio Batuen funtsetatik, biltzarrak ezarri modu eta baldintzetan, komitearen eginkizunen garrantzia aintzat hartuta.

9. Konbentzio honen arabera, komitearen eginkizunak eragingarriak izan daitezen, Nazio Batuetako idazkari nagusiak behar adina langile eta zerbitzu ezarriko ditu.

18. artikulua

1. Estatu-alderdiek Nazio Batuetako idazkari nagusiari txostena aurkezteko konpromisoa hartu dute, komiteak azter dezan; txosten hori izango da konbentzio honetako xedapenak eragingarri egiteko hartu dituzten legegintza-, epaiketa- eta administrazio-neurriei edo bestelako neurriei buruzkoa eta esangura horretan emandako aurrerapausoei buruzkoa. Bada, txosten hori aurkeztuko dute:

- a) Kasuan kasuko estatuarentzat konbentzioa indarrean jarri eta urtebetera, eta
- b) osterantzekoan, gutxienez, lau urterik behin, eta komiteak hala eskatzen duenean.

2. Txostenetan zehaztu ahal izango dira konbentzio honetako betebeharrak ez gauzatzeko orduan eragina izan duten inguruabar eta zailtasunak .

19. artikulua

1. Komiteak onetsiko du bere araudia.

reglamento.

2. El comité elegirá su mesa para un período de dos años.

Artículo 20.

1. El comité se reunirá normalmente todos los años por un período que no exceda de dos semanas para examinar los informes que se le presenten de conformidad con el artículo 18 de la presente Convención.

2. Las reuniones del Comité se celebrarán normalmente en la sede de las Naciones Unidas o en cualquier otro sitio conveniente que determine el Comité.

Artículo 21.

1. El comité, por conducto del Consejo económico y social, informará anualmente a la Asamblea General de las Naciones Unidas sobre sus actividades y podrá hacer sugerencias y recomendaciones de carácter general basadas en el examen de los informes y de los datos transmitidos por los Estados partes. Estas sugerencias y recomendaciones de carácter general se incluirán en el informe del Comité junto con las observaciones, si las hubiere, de los Estados partes.

2. El Secretario General transmitirá los informes del Comité a la Comisión de la condición jurídica y social de la Mujer para su información.

Artículo 22.

Los organismos especializados tendrán derecho a estar representados en el examen de la aplicación de las disposiciones de la presente Convención que correspondan a la esfera de sus actividades. El Comité podrá invitar a los organismos especializados a que presenten informes sobre la aplicación de la Convención en las áreas que correspondan a la esfera de sus

2. Komiteak hautatuko du bere mahaia, bi urterako.

20. artikulua

1. Komitea, orokorrean, urtero bilduko da, gehienez ere, bi astez, konbentzio honen 18. artikuluekin bat etorritz aurkezten zaizkion txostenak aztertzeko.

2. Komitearen bilerak, orokorrean, Nazio Batuetako egoitzan egingo dira edo komiteak egokitzat jotzen duen beste edozein tokitan.

21. artikulua

1. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren bidez, komiteak urtero informatuko du bere jardueraz Nazio Batuetako Biltzar Orokorra, eta izaera orokorreko iradokizunak eta gomendioak egin ahal izango ditu, estatu-alderdiek igorritako txostenen eta datuen azterketak oinarri hartuta. Izaera orokorreko iradokizun eta gomendio horiek komitearen txostenera bilduko dira, estatu-alderdien oharrekin batera, halakorik balego.

2. Idazkari nagusiak komitearen txostenak igorriko dizkio Emakumearen Egoera Juridikoaren eta Gizarte-egoeraren Batzordeari, horren gaineko informazioa izan dezan.

22. artikulua

Antolakunde espezializatuek ordezkatura egoteko eskubidea izango dute, konbentzio honetako xedapenen aplikazioa aztertzen denean, euren jarduera-esparrukoak diren xedapenei dagokienez. Komiteak gonbita egin ahal izango die antolakunde espezializatuari, txostena egin dezaten, euren jarduera-esparruetan konbentzioak duen aplikazioari buruz.

actividades.

PARTE VI

Artículo 23.

Nada de lo dispuesto en la presente Convención afectará a disposición alguna que sea más conducente al logro de la igualdad entre hombres y mujeres y que pueda formar parte de:

- a) la legislación de un Estado parte; o
- b) cualquier otra convención, tratado o acuerdo internacional vigente en ese Estado.

Artículo 24.

Los Estados partes se comprometen a adoptar todas las medidas necesarias en el ámbito nacional para conseguir la plena realización de los derechos reconocidos en la presente Convención.

Artículo 25.

1. La presente Convención estará abierta a la firma de todos los Estados.
2. Se designa al Secretario General de las Naciones Unidas depositario de la presente Convención.
3. La presente Convención está sujeta a ratificación. Los instrumentos de ratificación se depositarán en poder del Secretario General de las Naciones Unidas.
4. La presente Convención estará abierta a la adhesión de todos los Estados. La adhesión se efectuará depositando un instrumento de adhesión en poder del Secretario General de las Naciones Unidas.

Artículo 26.

1. En cualquier momento, cualquiera de los Estados Partes podrá formular una solicitud de revisión de la presente Convención mediante comunicación escrita dirigida al Secretario General de las Naciones Unidas.

VI. ZATIA

23. artikulua

Konbentzio honetan xedatutakoak ez du eraginik izango gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko baliagarriagoa den beste edozein xedapeni begira; halako xedapenak jaso ditzaketen arauen artean izango dira:

- a) Estatu-alderdi baten legeria; edo
- b) Estatu horretan indarrean dagoen beste edozein konbentzio, tratatu edo nazioarteko akordio.

24. artikulua

Estatu-alderdiek konpromisoa hartu dute, nazio-esparruan behar diren neurri guztiak hartzeko, konbentzio honetan aitortutako eskubideak oso-osoan gauza daitezten.

25. artikulua

1. Konbentzio hau estatu guztiek sinatu ahal izango dute.
2. Nazio Batuetako idazkari nagusia izendatu da konbentzio honetako gordailuzain.
3. Konbentzio hau berretsi beharko da. Berreste-agiriak Nazio Batuetako idazkari orokorraren esku utziko dira gordailutu ditzan.
4. Konbentzio honi estatu guztiak atxiki ahal izango zaizkio. Atxikipena gauzatuko da atxikipen-agiria Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita, gordailutu dezan.

26. artikulua

1. Edozein unetan, estatu-alderdietarik edonork konbentzioaren berrikuspen-eskabidea egin ahal izango du, Nazio Batuetako idazkari nagusiari idatzizko komunikazioa eginez.

2. La Asamblea General de las Naciones Unidas decidirá las medidas que, en su caso, hayan de adoptarse en lo que respecta a esa solicitud.

Artículo 27.

1. La presente Convención entrará en vigor el trigésimo día a partir de la fecha en que haya sido depositado en poder del Secretario General de las Naciones Unidas al vigésimo instrumento de ratificación o de adhesión.

2. Para cada Estado que ratifique la Convención o se adhiera a ella después de haber sido depositado el vigésimo instrumento de ratificación o de adhesión, la Convención entrará en vigor el trigésimo día a partir de la fecha en que tal Estado haya depositado su instrumento de ratificación o adhesión.

Artículo 28.

1. El Secretario General de las Naciones Unidas recibirá y comunicará a todos los Estados el texto de las reservas formuladas por los Estados en el momento de la ratificación o de la adhesión.

2. No se aceptará ninguna reserva incompatible con el objeto y el propósito de la presente Convención.

3. Toda reserva podrá ser retirada en cualquier momento por medio de una notificación a estos efectos dirigida al Secretario General de las Naciones Unidas, quien informará de ello a todos los Estados. Esta notificación surtirá efecto en la fecha de su recepción.

Artículo 29.

1. Toda controversia que surja entre dos o más Estados partes con respecto a la interpretación o aplicación de la presente Convención que no se solucione mediante negociaciones se someterá al arbitraje a petición de uno de ellos. Si en el plazo de seis meses

2. Nazio Batuen Biltzar Orokorrak erabakiko ditu, hala denean, eskabide horren inguruan hartu beharreko neurriak.

27. artikulua

1. Konbentzio hau indarrean jarriko da, berreste- edo atxikipen-agirietatik hogeigarrena zein datatan gordailutu, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita, eta hogeita hamargarren egunean.

2. Berreste- edo atxikipen-agirietatik hogeigarrena gordailutu ondoren konbentzioa berresten edo horri atxikitzen zaion estatu bakoitzarentzat konbentzioa indarrean jarriko da, kasuan kasuko estatu horrek zein datatan gordailutu bere berreste- edo atxikipen-agiria eta hogeita hamargarren egunean.

28. artikulua

1. Estatuek berrespen- edo atxikipen-unean egindako erreserben testua Nazio Batuetako idazkari nagusiak jasoko du, eta testu hori estatu guztiei komunikatuko die.

2. Ez da onartuko konbentzioaren xedearekin eta asmoarekin bateraezina den erreserbarik.

3. Erreserba oro edozein unetan kendu ahal izango da, Nazio Batuetako idazkari nagusiari ondore horietarako jakinarazpena eginez; idazkari nagusiak horren berri emango die estatu guztiei. Jakinarazpen horrek ondoreak sortuko ditu berori jasotzeko datan.

29. artikulua

1. Konbentzioaren interpretazioari edo aplikazioari dagokionez, estatu-alderdi bi edo gehiagoren artean sortzen den eztabaida oro tartekaritzaren mende utziko da, euretako baten batek hala eskatuta, betiere, eztabaida negoziazio bidez konpondu ez bada. Tartekaritza-

contados a partir de la fecha de presentación de solicitud de arbitraje las partes no consiguen ponerse de acuerdo sobre la forma del mismo, cualquiera de las partes podrá someter la controversia a la Corte Internacional de Justicia, mediante una solicitud presentada de conformidad con el Estatuto de la Corte.

2. Todo Estado parte, en el momento de la firma o ratificación de la presente Convención o de su adhesión a la misma, podrá declarar que no se considera obligado por el párrafo 1 del presente artículo. Los demás Estados partes no estarán obligados por ese párrafo ante ningún Estado parte que haya formulado esa reserva.

3. Todo Estado parte que haya formulado la reserva prevista en el párrafo 2 del presente artículo podrá retirarla en cualquier momento notificándolo al Secretario General de las Naciones Unidas.

Artículo 30.

La presente Convención, cuyos textos en árabe, chino, español, francés, inglés y ruso son igualmente auténticos, se depositará en poder del Secretario General de las Naciones Unidas.

En testimonio de lo cual, los infrascritos, debidamente autorizados, firman la presente Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer.

eskabidea aurkeztu eta sei hilabeteko epean alderdiak ez badira ados jartzen tartekaritza-motaren gainean, alderdietarik edonork utzi ahal izango du eztabaida Nazioarteko Justizia Gortearen esku, Gortearen estatutuarekin bat datorren eskabidea aurkeztuta.

2. Estatu-alderdi orok, konbentzio hau sinatu nahiz berresteko unean edo horri atxikitzeko unean, adierazi ahal izango du artikuluko 1. paragrafoak ez duela berau behartzen. Paragrafo horrek gainerako estatu-alderdiak ez ditu behartuko erreserba hori egin duten estatuei begira.

3. Artikulu honetako 2. paragrafoko erreserba egin duen estatu orok edozein unetan kendu ahal izango du hori, Nazio Batuetako idazkari nagusiari hala jakinarazita.

30. artikulua

Konbentzio hau, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utziko da, gordailutu dezan; berebat, konbentzioaren testuak kautoak izango dira, arabiarrez, txinatarrez, espainolez, frantsesez, ingelesez eta errusieraz.

Horren guztiorren lekukotza gisa, behean sinatzen dutenek, behar bezala baimenduta, emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeke Konbentzioa sinatu dute.